



G-7a Oiartzunetik ikuskatzen da ere



Herritarren segurtasunean izan daitezkeen eraginak koordinatzeko, horien inguruko informazioa emateko eta jarraipena egiteko polizia-jarraipenerako mahaia eratu dute Ertzaintzaren Oiartzungo egoitzan



EL DIARIO VASCO
Sábado, 24 agosto 2019, 12:26



Biarritzen abuztuaren 23tik 26ra bitarteko G-7aren goi-bilerak eta udako itzulera-operazioak bat egin dute, ibilgailuen joan-etorririk handiena izaten den asteburuan hain zuzen ere, –egunean 30.000 inguru–.

Frantziako agintariek segurtasun-kontrolen areagotzearen eta mugaren aldizko itxieren ondorioz, Trafiko Zuzendaritzak behin berriro ere gomendatu du abuztuaren 23tik 26ra bitartean Euskadiko mugako pasabidea saihesteko, udako irteera eta itzulera operazioa aurkeztu zenetik egin duen bezala.

Horretarako, 90.000 liburuxka argitaratu ditu lau hizkuntzatan, gidariei jakinarazteko abuztuaren 23tik 26ra bitartean Biriatuko ordainlekua saihestu behar dutela. Liburuxkak Bidegiko zerbitzuguneetan eta ordainlekuetan banatu dira, bai eta Marokorako tiketak saltzen diren puntuetan ere.

Bestalde, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak diseinaturiko larrialdietako planean hainbat trafiko-egoera aurreikusi diren dagozkien neurriak hartzeko, esate baterako, larrialdietarako korridoreak, ibilgailuak pilotzeko gunek edo larrialdiei aurre egiteko eremuak egokitzea.

Larrialdiak koordinatzeko SOS-Deiak 112 zentroa arduratu da tartean diren eragile guztiak (hau da, DYA, Gurutze Gorria, suhiltzaileak, Osakidetzako larrialdiak, Babes Zibileko Boluntario Elkarteak eta abar, bai eta udalak eta erakunde ezberdinak ere) koordinatzeaz.

Gainera, Segurtasun Sailak polizia-jarraipena egiteko eta erabakiak hartzeko zentro bat aktibatu du Oiartzunen. Zentro hori etengabe harremanetan egongo da Hendaiaiko CCPArekin, Irungo Ertzain-etxearekin eta Gipuzkoako gainerako ertzain-etxeekin, Irungo eta Hondarribiko udaltzaingoekin, eta Txurdinagako SOS-Deiak Koordinazio Zentroarekin eta Trafikoa Kontrolatzeko eta Kudeatzeko Zentroarekin.

Oiartzungo jarraipen-mahaia Segurtasun Saileko arduradunek, Ertzaintzaren buruak, Gipuzkoako lurralde-buruzagitzak eta ekitaldian esku hartuko duten Ertzaintzako unitateen arduradunek osatuko dute. Jarraipenerako mahai horretan Guardia Zibileko, Polizia Nazionaleko, Nafarroako Foru Poliziako eta Irungo Udaltzaingoko kideek eta Frantziako Poliziaren ordezkariak ere parte hartuko dute.

Biarritzen G-7ak egingo duen goi-bilera dela-eta diseinatu den eta ezarriko den operatibo bereziaren helburua bertan parte hartzen duten guztien edo goi-bilerarekin lotuta programatutako jardueren ondorioak jasango dituzten guztien segurtasun publikoa eta bide-segurtasuna bermatzea da.

TEMAS Zabalik, Euskera

La mejor selección de noticias en tu mail

Recibe las principales noticias, análisis e historias apuntándote a nuestras newsletters

Apúntate

Lo + leído

El Diario Vasco

Cultura

[Top 50](#)

1 **Bélgica derriba un puente medieval para dejar pasar a los cruceros**